



GERNIKA-LUMOKO ENPRESEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA EGITEN DUENA, 2024AN EUSKARA PLANA ERATU IZATEAGATIK EDO INDARREAN DAUDENAK INPLEMENTATZEAGATIK.

1. Onuradunak

Izaera juridikoa duten enpresak izango dira eta Gernika-Lumoko Udalerrian kokatuak, eta ezinbestekoa izango da enpresek deialdiaren helburuarekin bat egin eta finkaturiko baldintzak betetzea.

2. Helburua

Enpresetan 2024 urtean Euskara Planak eratu edota indarrean zeudenak inplementatu izana diruz laguntzea.

3. Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak deialdian bertan jasotzen dira, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko urriaren 31ko erabakiaren bidez onartu bezala. Deialdiaren testua, oinarriak jasotzen dituenak, osorik argitaratu da DNDBn.

4. Zenbatekoa

Laguntza horietarako 10.000 euro aurreikusi dira.

5. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost (15) egun naturalekoa izango da, deialdiaren laburpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gernika-Lumon, 2024ko azaroaren 19an.

Alkatea

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta

